



DONOSTIAKO UDALERRIKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO PONENTZIAREN ALDAKETA

SARRERA

2016ko irailaren 20an, Diputatuen Kontseiluak onartu zuen udalerrri honi dagozkion hiri-izaerako ondasun higiezinaren lurzoruaren eta eraikuntzen balioen ponentziaren berrikuspena. Ponentzia horretan oinarrituta lortu ziren hiri-izaerako ondasun higiezinaren katastro-balio berriak eta horiek 2017ko urtarrilaren 1ean sartu ziren indarrean.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 12. artikulua ezartzen duenez, katastroko balioak Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu, ofizioz edo dagozkion udalak eskatuta. Aldaketa horiek gauzatuko dira baldin eta hirigintza-plangintzak edo beste inguruabar batzuek agerian uzten badute funtsezko desberdintasunak daudela udalerrian dauden ondasun higiezinaren katastroko balioen eta merkatu-balioen artean, edo udalerriko zonaren batean edo batzuetan dauden ondasun higiezinaren merkatu-balioen artean.

Balio Ponentzia onartu zenetik, udalerriko hirigintza-plangintzan lurzoruaren izaerari eragiten dioten aldaketak egin dira, eta horiek, lurzoruaren eraginpeko ondasunen merkatu-balioan eragina dute.

Horregatik guztiagatik, aldatu egin da udalerrri honetako hiri-izaerako ondasun higiezinaren lurzoruaren eta eraikuntzen balio ponentzia.

XEDEA

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, aldatu egin da udalerriko Balore Ponentzia, honako inguruabar honen ondorioz:

- **«IB.22 Infernua» HEari dagozkion Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa behin betiko onartzea, 2021eko martxoaren 25ean egindako Donostiako Udaleko osoko bilkuran (GAOn 2021eko apirilaren 23an argitaratua).**



EGIN BEHARREKO ALDAKETAK

Balioen Ponentzian honako aldaketa hauek egingo dira:

- 1.- 810 zona katastralaren mugak aldatzen dira.
- 2.- 452 zona katastrala sortzen da.
- 3.- Sortutako zonak honako balioak izango ditu:

<u>Zona</u>	<u>Hirigintza sailkapena</u>	<u>(EK) Eraik. Kostua</u>	<u>(BE) Balio. Erag.</u>	<u>(MP) Apark. Modulua</u>
452	HIRILURRA	850 €/m ² (e)	1.268,17 €/m ² (e)	25.000 €

- 4.- 452 zonako kale edota kale-zatiei Q katastro-azpizona esleitzen zaie.

I ERANSKINA

Hirilurraren mugatze planoak.

II ERANSKINA

Zona katastralaren planoak.